

Walabiaren esneak karenaren funtzioa duela frogatu dute

Taxonomistek berezita sailkatu ohi dituzte ugaztun karendunak (edo plazentarioak) eta martsupialioak. Izan ere, kanguruen, walabien eta beste martsupialioen fetua ez da garatzen amaren umetokiaren barruan. Orain, ordea, ikusi dute bereizketa hori agian zorrotzegia dela.

Hain zuzen, Standford Unibertsitatean egindako [ikerketa batean](#), *Macropus eugenii* espeziaren ernaldia aztertu dute. Amaren sabelaldia oso laburra da neurri horretako animalia batentzat: hilabete eskas. Gero, urtebete inguru ematen du amaren poltsaren barruan, garatzen eta hazten.

Ikertzaileek lehenik walabiaren karenaren geneen espresioa ikertu zuten, eta beste bi espezierenarekin alderatu zuten; saguarenarekin eta emakumearenarekin. Eta ikusi zuten walabiaren sabelaldiaren amaierako gene-espresioa oso antzekoa zela beste bi espezie horiek sabelaldiaren hasieran izaten dutenarekin.



Walabi ama eta kumea Tasmaniako baso batean.
ARG.: PanBK/CC-BY-SA 3.0.

Segidan, walabiaren ugaztetan espresatzen ziren geneak ikertu zituzten, eta frogatu zuten guruin horietan espresatzen direnak eta beste ugaztunetan sabelaldiaren amaieran karenan espresatzen direnak berberak direla.

Hortik ondorioztatu dute walabiek ere badutela karen osoa, beste ugaztunek bezala. Alde bakarra da eboluzioan itxura desberdina hartu dutela egitura horiek, baina gene-espresio eta funtzio berbera dute batzuen eta besteen organoek. ●

EUSKARA

Bizkaia eskura

Ikasi euskara dohainik
Aprende euskera gratis